




“LANDU ADIMENA” JOKO BILDUAK

Kontsumo kritiko, arduratsu eta
eraldatzailearen alde oinarri
feministatik abiatuta




Seitem

2017ko edizioa.

Edizioa: **equipare koop. elk. txikia, SETEM Hego Haizea.**

Diseinua eta maketazioa: **LaBox Marketing y Comunicación.**

Lan hau **Creative Commons** lizentziapean dago.



CC BY-NC-SA (Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin)

Lizentzia honek beste batzuei bide ematen die haren obran oinarri hartuz nahasi, egokitu eta eraikitzeko, helburu ez-komertzialetarako, betiere egiletza aitortuta eta sortzen diren lan berriak baldintza bereko lizentzia baten pean jarrita.

LAGUNTZAILEA



FINANTZATZAILEA



19

20

21

22

AURKIBIDEA

Gidaren sarrera orokorra.....	4
Gure jokoaren arauak.....	5
Gure abiapuntua: autodefinitua	6
Desberdintasunen jokoak: ikusgaia eta ikusezina	8
Arrastoen jokoak: hautabideak bilatu eta eraikitzea	9
Jarraituko du: saioa ixtea	11
1. Eranskina: autodefinitua fitxa	13
2. Eranskina: desberdintasunak fitxa	15

14

2

3

4

5

6

19

20

21

22

GIDAREN

SARRERA OROKORRA

Eskuarte duzun dokumentu hau **SETEM Hego Haizeak** sustatutako lan prozesuaren emaitza da. Ildo horri eutsiz, talde desberdinak nahasiz eta parte hartuz, kontsumo kapitalistaren eredu indarkeria matxistak eta genero desberdintasuna aplikatzeko tresna bihurtzen duen funtsezko elementuen inguruan hausnarketa egin eta sakondu nahi izan dugu.

Kontsumo eta indarkeria matxisten nahaspila askatzeko prozesuan, tresna pedagogiko hau garatu dugu eta hainbat ikus-entzunezko nahiz gida hau ditu. Eztabaida sorrarazi nahi du honako helburuekin: hausnartu, zalantzan jarri eta hautabideak eraikitzeko orduan, aukerak izatea.

Azkenik, nahasitako pertsona eta erakunde guztien ahalegina, asko eta asko Zarensare-Enredando sareari lotuak, eskertu nahi da, bai diseinatu eta sortzean, bai prozesua gauzatzean ere: **Asociación Ecologista Sagarrak, Manuela Eguiguren, Mujeres en la Diversidad, Mujeres de Aquí y de Allá, Mujeres Libertarias, Pikara Magazine eta equipare kooperatiba.**

14

2

3

4

5

6

GURE JOKOAREN **ARAUAK**

HELBURUA

Saio/lantegiaren logistika, horretan partaideak, e.a. aurkeztu eta argitzea, hain zuzen ere, **lantegia behar bezala garatzeko** edozein hasierako ohar edo funtzionamendu erabaki hartzea.

Kontuan hartu beharrezko zenbait gako:

- Aretoaren antolaketa eta kokapena, partaide guztien artean elkarrizketa hurbila eta irekia sustatzeko.
- Inplikazio eta presentzia aktiboa bultzatzea eta etenaldiak ahalik eta neurri handienez saihestea.
- Partaide guztien artean hitza errespetuz hartu eta txandakatea, dinamikaren denboraren eta partaide kopuruaren arabera orekatua izatea eta partaide nahiz ikuspegi gehien partaidetza sustatzea, bertara daitezkeen emakumeen eta gizonen aniztasuna kontuan hartuta.

GARAPENA

Egingo den jardueraren esparrua aurkeztuko da: erakunde antolatzaileak, proiektuaren eremua, ordutegiak, e.a.

Pertsona partaideei aurkezpen laburra egiteko gonbita luzatuko zaie: izena, talderen batean partaidetza edota kidesasuna, jarduerarekiko interesa edo itxaropena, e.a.

GURE ABIAPUNTUA

AUTODEFINITUA

HELBURUA:

Hasierako hainbat kontzeptu edo kontzeptu esparruak argitu nahi dira, errealitatearen analisi kritikoa egin ahal izateko. Xede horrez, alde aurretiko pertsona partaideen erreferentziak eta kapitalismo heteropatriarkalaren eta genero desberdintasunen nahiz indarkeria matxistaren arteko aliantzak aztertzeko orduan ikuspegi berezia kontuan hartuko dira.

GARAPENA:

Lantegiaren hasieran hausnarketari ekiteko hitzak (*) aurkeztuko dira - (A4 kartelaren, zerrendaren, hormairudiaren, e.a. modura aurkez daitezke). Hitz bakoitzaren inguruan partaide bakoitzari ondorengoak idaztea eskatuko zaio:

- 1) Egiatzapena, gertakari azpimarragarria edo zerikusia duen kontzeptua.
- 2) Zalantza, alderdi nabarmena, sakontzeko interesa.

*** PATRIARKATUA, KONTSUMISMOA, KAPITALISMOA, FEMINISMOA, BEHERAPENA, ELKARTASUNA, IRAUNKORTASUNA, MATXISMOA, ESTEREOTIPOA / ROLA, ANIZTASUNA, GENEROA, INDARKERIA MATXISTA, HETEROARAUAK, JABEKUNTZA**

Lantegia dinamizatzailerak alde aurretik kontzeptu horiek bildu/laburtu ditu eta, horretarako, bere bibliografia aipamenei erreparatu die.

Hasieran, hitz desberdinetatik abiatuta lantegian parte hartzen ari direnei **alderdi azpimarragarriekin, kontzeptuekin edo gertakariekin bateratze lana egiteko gonbita luzatuko zaie**. Halaber, hitz ondorioz azaldu ostean, zalantzak eta sakontzeko gai interesgarriak landuko dira.

Kontzeptuei buruzko elkarrizketa bultzatuko da eta partaideek egindako ekarpen ezberdinen artean erlazioa sustatuko da.

Hasierako jarduera elkarrizketa/bateratze lanarekin amai daiteke edo pertsona partaideen artean **AUTODEFINITUA FITXA** pasa daiteke.



DINAMIZATZAILEARENTZAT OHARRA

Lehenengo hurbilketa da eta analisirako termino edota kontzeptu batzuk aurkezteko unea ere bai; bakoitzari buruzko lanak eta hausnarketak berezko lantegia sor dezake, beraz, lehenengo jardura honen helburua azpimarratu nahi da, saioa abiarazteko abiapuntua dela, alegia, eta, ondorioz, **hainbat kontzeptu definitzean ezingo da zehatz-mehatz sakondu.**

Kontzeptu desberdinetan sakontzeko, eranskinen (**AUTODEFINITUA FITXA**) definizio horien proposamena egin da. Era berean, zenbait link orokor ageri da, lantzen jarraitzeko kontsulta zehatzagoak gauza daitezten.

Info GEHIAGO

1. Eranskinera joan:

*AUTODEFINITUA
FITXA*



ESTEKAK

- DICCIONARIO DE ACCIÓN HUMANITARIA Y COOPERACIÓN AL DESARROLLO
· <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/>
- DICCIONARIO CRÍTICO DE EMPRESAS MULTINACIONALES
· http://omal.info/spip.php?page=diccionario-indice&id_rubrique=39
· <http://omal.info/spip.php?rubrique40>
- PALABRAS Y CONCEPTOS CLAVE EN EL VOCABULARIO DE LA IGUALDAD
· <http://www.mujeresenred.net/spip.php?article1301>
- GLOSARIO FEMINISTA EN LENGUAJE DE SIGNOS
· <http://glosario.pikaramagazine.com/inicio.php?lg=es&sec=inicio>
- GLOSARIO FEMINISTA PARA PRINCIPIANTES
· https://www.buzzfeed.com/beatrizserranomolina/vocabulario-glosario-feminista-para-principiantes?utm_term=.pedYg9Y86w#.kFD6bd6VgX

DESBERDINTASUNEN JOKOA

IKUSGAIA ETA IKUSEZINA

HELBURUA:

Errealitateari buruzko analisi kritikoan sakontzea, kontsumo kapitalistaren eraginak eta genero desberdintasunak nahiz indarkeria matxista elkar lotzeko.

GARAPENA:

“**LANDU ADIMENA**” bideoaren lehenengo zatia ikusiko da (film laburren 2 bertsioetarako baliozkoa).

Taldea osatzen duen pertsona kopuruaren arabera, hori banatzeko aukera planteatuko da.

Ikusitako bideo zatiaren inguruan hausnarketa/analisirako unea planteatzen da, honako galderari erantzuteko: **ZER GERTATZEN ARI DA?** Beren ustez agerraldian gertatzen ari dena deskribatzea proposatuko da: zer egiten ari dira pertsonaiak? Zer egoera islatzen ari dira?

Aztertutako gaiekin bateratze lana burutuko da. Dinamizatzaileak ideiak partaide talde guztiarentzat modu ikusgai azaltzeko jasoko ditu: paper horma irudia edo antzekoa.

Bideoaren lehenengo zatiari buruz hasierako analisia egin ondoren, datu orokorrak aurkeztuko dira (Ikusi **DESBERDINTASUNAK FITXA**). Horiek alde aurretik prestatuak egongo dira eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun zuloak landuko dituzte. Horma irudiaren formatuan, zatika, etab. aurkez daitezke.



DINAMIZATZAILEARENTZAT OHARRA

Dinamizatzaileak nahiz taldeak berak gaiaz duen alde aurretiko hurbilketa/ezagutza mailaren eta talde hartzailearen arabera, datuak saio bakoitzerako molda daitezke.

Info GEHIAGO

2. Eranskinera joan:
*DESBERDINTASUNAK
FITXA*



ARRASTOEN JOKOA

HAUTABIDEAK BILATU ETA ERAIKITZEA

HELBURUA:

Egungo kontsumo kapitalista heteropatriarkalaren ereduarekiko hautazko erantzunak identifikatu eta egituratzea.

GARAPENA:

“**LANDU ADIMENA**” bideoaren azkeneko zatia ikusiko da (film laburren 2 bertsioetarako baliozkoa).

Taldea osatzen duen pertsona kopuruaren arabera, aurreko jardueran gauzatu den bezala edo taldeak trukaturaz, partaideak **4/5 pertsonen** multzotan banatzeko aukera planteatuko da.

Bideoaren azkeneko zatiaren inguruan hausnarketa/analiserako unea gordeko da, honako galderari erantzuteko: **ZEIN DA ZURE ERANTZUNA?**

Pertsonaiek bideoan lehen aurkeztu diren egoerak ebazteko planteatu dituzten erantzuna eta aukerak deskribatzea proposatuko da. Ondoren, bideoaren azterketatik nabarmendu diren erantzunak kontuan hartuta, filmean ageri den egoera konpontzeko bestelako erantzunak pentsatzea eta deskribatzea eskatuko da.





DINAMIZATZAILEARENTZAT OHARRA

Saioa garatzeko denbora eskuragarriak proposamen hauek maila handiagoan edo txikiagoan sakontzea definituko du. Dinamizatzaileak **"IDEIA SENDOAK-ARRASTOAK"** eskura ditzake partaideek hautabideak proposatzean kontuan har ditzaten.



IDEIA SENDOAK - ARRASTOAK

- Genero desberdintasunari buruzko zuloak murrizteko eragitea.
- Emakumeen jabeakuntza sustatzea.
- Generoaren estereotipo eta rol tradizionalak zalantzan jarri eta eraldatzea.
- Biziaren zaintza eta iraunkortasun zereginei balioa ematea.
- Sare eta erantzun kolektiboak sendotzea.
- Ingurumen eragina murrizten dela kontuan hartzea.
- Tokitik eraikitzea eta orokorrarekin elkarrekin jardun eta konektatzea.
- Aniztasuna ikusgai bihurtu eta indartzea.

Aztertutako gaiekin bateratze lana burutuko da. Dinamizatzaileak ideiak partaide talde guztiarentzat modu ikusgai azaltzeko jasoko ditu: paper horma irudia edo antzekoa.

JARRAITUKO DU:

SAIOA IXTEA

HELBURUA:


Saioa amaitzeko, saioan zehar planteatutako proposamenak edo ideia sendoak indartuko dira.

GARAPENA:

Saioan zehar egindako bateratze lanak berreskuratuko dira (paper horma-irudiak edo antzekoak, etab.). Horien bitartez, dinamizatzailleak partaideek azaldutakoaz azken laburpena gauzatuko du.

Ixteko txanda egin daiteke eta saioa amaitu ostean, partaide bakoitzak burura etorri zaion ideia berriren bat azpimarratuko du.

Partaidetza eskertuko da, deialdi eta jarduera berriak, datuak edo bibliografia aipamenak, e.a. jakinarazteaz gain.



19

20

21

22

12

11

ERANSKINAK

14

2

3

4

5

6

1. ERANSKINA:

AUTODEFINITUA FITXA

• PATRIARKATUA

Familiako **emakume eta haurren gainean gizonen nagusitasuna azaltzea eta erakundetzea** eta emakumeen gaineko nagusitasun hori, oro har, gizartean zabaltzea. Gerda Lerner (1986).

• KONTSUMISMOA

Funtsezkotzat jotzen ez diren baliabideak, **ondasunak eta zerbitzuak metatzea, erostea eta gehiegiz erabiltzea**.

• KAPITALISMOA

Merkatuan, produkzio bitartekoen **jabetza pribatuan era ahalik eta denborarik laburrenean kapitala areagotzea bilatzen duten eragileen arteko lehian oinarritzen den sistema ekonomikoa**.

• FEMINISMOA

Mugimendu eta teoria sozial nahiz politikoa da, XVIII. mendearen amaieran hasi zen eta horren arabera, **emakumea talde edo kolektibo bezala gizon taldearen aldetik zapalketa, mendekotasun eta ustiapenez jakitun izan zen eta oraindik hala da**. Horren ondorioz, ekintzan jardun dute askatu, beren eskubideak aldarrikatu eta gizarteak eskatzen dituen aldaketak bultzatzeko.

• BEHERAPENA

Banakako eta taldeko kudeaketa, lehengai, energia eta natur espazioen guztizko kontsumoa murriztean oinarritua.

• ELKARTASUNA

Emakumeen artean **lagunarteko eta elkarrekiko harremana**, ideia berdinak partekatzen badituzte eta **helburu bera** lortzeko elkartasunez lanean badihardute.

• IRAUNKORTASUNA

Ikuspegi bat da; horren arabera, **etorkizuneko belaunaldien gaitasuna asetzea arriskuan jarri gabe** egungo beharrei erantzun nahi zaie eta, ildo horri eutsiz, hazkuntzaren, natur eta gizarte ingurunea zaintzearen eta gizarte ongizatearen artean ikuspuntu osoa sustatzen da.

• MATXISMOA

Jarrera, jokabide, gizarte jardun eta sinismenen multzoa, emakumearen mendekotasunaren, **feminitatearen eta beste edozein identitate, adierazpen edota jokabideren aurrean gizona eta maskulinitate hegemonikoa balioztatzen duena.**

• ESTEREOTIPOA / ROLA

Gizarte esleipenak -izateko, sentitzeko eta jarduteko moduei dagozkienak- **itxaropen eta eskakizun kolektibo eta subjektiboen** oinarriean sortutakoak, oso irizpide desberdinetatik abiatuta, besteak beste, arraza, adina, erlijioa, gizarte klasea edo afiliazio politikoa.

• ANIZTASUNA

Sexu orientazio eta identitateari, jatorriari, kulturari, funtzioari, e.a. buruzko heterogeneotasuna.

• GENEROA

Sexu ezberdintasunaren kultur eraikuntza azpimarratzen duen analisi kategoriatik, hau da, emakumeen eta gizonen jokabide, jardura eta funtzio desberdinak **biologiak zehaztutakoetatik at, kulturaren ikuspegitik eraikiak direla** antzematea.

• INDARKERIA MATXISTA

Emakumeen aurka eta **genero rol tradizionalen arabera** arauak betetzen ez dituen subjektu ororen kontra aplikatutako indarkeria da, emakumeen gainean gizonen aginte harremanetarako sistemaren esparruan diskriminazioa eta desberdintasunaren egoera adierazteko; nolana ere, bitarteko fisikoak, ekonomikoak edo psikologikoak erabiliz sortzen da, mehatxuak, larderia eta hertsapenak barne, eta emaitza kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa da. Berdin dio eremu publikoak edo pribatuan eragitea.

• HETEROARAUAK

Heterosexualitatea eta usadioz horri lotutako portaerak normalizatzen dituen sistema da eta, gainera, baliozko aukera bakar bezala ageri da; hala, aldi berean, **ideal heterosexualetatik eta generoaren rol tradizionaletatik kanpo edozein harreman mota diskriminatzen da.**

• JABEKUNTZA

Prozesu honen bidez pertsonak **gaitasunak, konfiantza, ikuspegia eta protagonismoa sendotzen dituzte**, bai banan-banan, baita taldean ere, bizi dituzten egoerak alda daitezzen bultzatzeko.

2. ERANSKINA:

DESBERDINTASUNAK FITXA

Denbora erabiltzeari buruz INEren (Estatistikako Institutu Nazionala) 2016ko datuen arabera, emakumeek gizonen baino **1-3 ordu gehiago** ematen dituzte etxeko lanetan eta egunero **2-10 aldiz gehiago** dihardute seme-alabak, adinduak eta gaixoak zaintzen. Horren ondorioz, besteak beste, emakumeek denbora gutxiago dute heziketa, aisialdi, partaidetza sozio-politiko, beren buruen zaintza eta abarrerako.

Etxeko ekonomia eta zereginak gutxi gorabehera emakumeen **% 60k** administratzen ditu, gizonen **% 35,5en** aldean ("[Indarkeria kontsumitzen dugu?](#)" ikerlana - [SETEM Hego Haizea PDF](#)).

Emakumeen **% 60k** produktu eta tratamendu estetikoak modu ertain/altuan erabiltzen ditu; gizonen kasuan, erabilera maila hori **% 8ri** dagokio. ("[Indarkeria kontsumitzen dugu?](#)" ikerlana - [SETEM Hego Haizea PDF](#)).

Emakumeen urteko batez besteko ordainsaria gizonena baino **% 22** txikiagoa da; horri ordainsariaren zuloa deritza. Gainera, enplegu ahuletan, gutxiago ordaintzen direnetan eta balioztapen gutxietsia dutenetan jarduteko aukera gehiago dituzte, sektore informalean aritzeaz gain. Ordaindu gabeko lanaren **% 80** emakumeek egiten dute: gaixoak zaintzea, etxeko lanak, bestelako gizarte jarduerak eta boluntarioen ingurukoak, e.a. Erretirorako adina gaingitu eta pentsiorik jasotzen ez duen munduko biztanleriaren **% 65** gutxi gorabehera emakumeak dira. Ahuleziaren egoera, hau da, baliabiderik ez izatea eta po-breziaren arriskuan sartzea, beraz, handiagoa da.

Hegoaldeko herrialdeetan emakumeak nekazaritzan lan indarraren **% 43** dira, baina gizonek baino lur gutxiago kontrolatzen dituzte eta, gainera, baliabideak, haziak, kreditua eta bestelako zerbitzuak lortzeko orduan, mugak dituzte. Lurren jabeak emakumeen kasuan **% 20** baino gutxiago dira.

Munduko biztanleriaren **% 47** Interneti konektatuta dago, dena den, Interneten erabilerari erreparatuz, generoaren zulo digitala **% 12koa** da. Emakumeek baliabide teknologikoekiko irisgarritasun gutxiago dugu.

18 eta 74 urteren bitartean **3 emakumetatik batek (62 milioi inguru)** jazarpen fisikoaren bat jasan du; **10etik batek**, berriz, sexu erasoa eta **20tik bat** inoiz bortxatua izan da ([“Indarkeria kontsu-mitzen dugu?” ikerlana - SETEM Hego Haizea PDF](#)).

Emakumeek hiri, herri eta abarretako puntu beltzei aurre egin behar dizkiete eta horiek segurtasunik eza eta egiazko beldurra sortzen dute **% 66,4** eta **% 59,4** kasuetan, hurrenez hurren. **3 emakumetik lek** erasoak pairatu ditu, hala nola, kaleko iruzkinak, eta, ondorioz, **kalean erasoa jasateko beldurrarengatik** mugikortasun ohiturak aldatu ditu. ([“Indarkeria kontsu-mitzen dugu?” ikerlana - SETEM Hego Haizea PDF](#)).

2

3


4


5

6

Setem

WWW.SETEM.ORG/EUSKADI

 [SetemHegoHaizea](https://www.facebook.com/SetemHegoHaizea)

 [@SetemHegoHaizea](https://twitter.com/SetemHegoHaizea)